

noaua



UZTAILAREN 18AN 'IKIMILIKILIK VOL 2' IKUSKIZUNA, NOAUA! ETA 650 USURBIL BIZI EKIMENAREN ESKUTIK

Artze anaiak, Laboak eta Zumetak 1976an sorturiko sentikariaren aldaera berria ikus ahal izango da Dema plazan / 19 or.

NOAUA

Usurbilgo jaiek irudi ikusgarriak utzi dituzte

Santixabel jaietako bost egunek eman dutena iruditan laburbiltzen saiatu gara / 08-18 or.



NOAUA

Astlehenean abiatu zen Udajolas. Aurten 27 hezitzaile arituko dira lanean / 03



ARGAZKI-MUNTAIA. USURBIL.EUS

Arroitxulo elkargunerako konpromiso kreditua onartu dute / 05



NOAUA

Usurbil FT-ko hiru talde lehiatuko dira aurtengo Donosti Cup txapelketan / 18



ION MARKEL

Zumeta Arte Estudiora hurbilduko da asteburu honetako bisita gidatua / 22



ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-23:00 Igandetik Ostiralera

8:00-00:00 Larunbatetan

**Sukaldea 22:00etan ixten da*

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



USURBIL
OPTIKA

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa


*Banketxeak
onartzean

Entzumen
azterketa

DOAN

Entzun
telebista

eta mugikorra
zure audifonoetan



**PILARIK
GABEKO**

TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

Ordutegi gehiago eskuratu
nahi badituzu, NOAUA! eta
udaletxean aurkituko dituzu.

Deskargatu ezazu
www.noaua.eus webgunetik
edo eskaneatu QR kodea
zure mugikorrarekin!



**TREN ETA
AUTOBUS
ORDUTEGIA**

25/26



TORCG

noaUA



Udajolas abian, hezitzaileak lanerako prest

Jaien biharamunean abiatu zen Udajolas. Astelehenetik hasita, gaztetxo askok NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak antolatutako udaleku irekietan parte hartzeko aukera izango dute.

Zehazkiago esanda, 3-12 urte arteko 224 haur eta gaztetxo izan dira aurtengo Udajolasen izena eman dutenak.

Astelehenetik ostiralera goiz partean batuko dira, 9:30-13:30 artean. Ostegunetan irteerak

egingo dituzte eta egun horietan Udajolas 16:30ak arte luzatuko da (uztailaren 30ean izan ezik, egun horretan goizez bakarrik batuko dira). Hiru irteerak uztailaren 9an, 16an eta 23an egingo dituzte, hurrenez hurren.

Datu deigarri bat: 27 hezitzaile arituko dira lanean aurtentzen. Bat izan ezik, gainerakoak usurbildarrak dira. Denek parekidetasun sailarekin antolatutako formazioa jaso dute.



Udajolaseko begirale talde jendetsua.

Garbigune mugikorra, Mikel Laboa plazan

Kalezartik Mikel Laboa plaza-ra lekuz aldatuko du Udalak garbigune mugikorra uztailaren 9an. Uztailaren 16an Aginagara eramango dute eta han izango da beste astebetez.

Udalak bi astero errefusa biltzeko eskaintzen duen hurrengo zerbitzu eguna, uztailaren 19a izango da.

Atalluko Garbigunearen udako ordutegia

- Uztailaren 15era arte: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 / 16:00-18:50. Larunbatetan, 09:00-12:50. Igande eta jai-egunetan itxita.
- Uztailaren 15etik irailaren 15era: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 / 16:00-18:20. Larunbatetan, 09:00-12:50. Igande eta jai-egunetan itxita.

"Goazen kalera", herri erdigunean irailera arte

Ekainaren 16az geroztik bi aldaketa txertatu dituzte astearteko ibilaldi osasuntsuen egitasmoan; batetik, abuztu amaiera artekoak herri erdigunean egingo dira. Bestetik, "paseo motzak izango dira, eta amaieran kafetxoa hartzeko aukera izango da lagunartean". 10:30ean, frontoitik abiatuta.

Udako oporren aurreko azken aldizkariak

Eskuartearen duzuen hau, 1083. aldizkaria duzue, udako oporraldiko azken aurrekoa. Azkena, astebete barru argitaratuko dugu, uztailaren 17an. Ordurako oharrik baduzue, hila- ren 13a baino lehen bideotatik helarazi ditzakezue:

- erredakzioa@noaua.eus
- 943 360 321.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.120 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Babestutako hedabidea



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Ni karroarekin, eta zer?


Eznuensekulahorrelakorik pentsatu. Edo ez zitzaidan burutik horrelakorik pasa. Baina azkenaldian hiru aldiz entzun dut antzekoa.

Kontua da erosketak egiteko "karroa" erabiltzen dudala –erosketetarako orga, Usurbilen "karrua"–. Erosoa iruditzen zait eta pisu asko eramateko osasuntsuagoa iruditzen zait. Fruta, esne kaxak, garbantzuko paketeak eta jogurtak karroan sartu eta gurpilen gainean ederki asko eramaten ditut. Eta ez poltsak txingak bezala hartuta besoak behartuz. Asmakizun ederra iruditzen zait, eta harrirituta geratu naiz orain dela gutxi esan dizkidatenekin.

Ni bezala karroarekin ibiltzen den batek hala esan zidan: "Banoa etxekoandreak bezala karroa hartuta erosketak egitera". Etxekoandreak? Etxekoandreak bakarrik erabiltzen al dute karroa?, pentsatu nuen. Etxekoandreak lotuta ote dago? Agian gizonezkoak eta emakume gazteagoak ez dira orgarekin ibiliko... Nik ez nuen lotura hori egina eta ezustean harrapatu ninduen.

Baina alaba gazteenak bai, lotura hori egina dauka. Erosketa batzuek egitera joateko esan eta berehala esan zuen: "Ni ez naiz joango amonak bezala karroarekin". Honek ere irudi bera dauka buruan: karroa = amona.

Eta azkenik, auzoko batek esan zigun orgarekin ikusten gintuela eta, "ze jende arraroa", pentsatu zuela. Orduan ez zigun



"Barregarri geratzen al da karroarekin erosketak egitera joaten dena?"

ezer esan, eta orain, konfiantza gehiago dugunez, hori bota digu. Bai, karroarekin ibiltzea arraroa, antigoalekoa, atsoen gauza... iruditzen zaio.

Eta ez ditut ulertzen lotura horiek. Zergatik duen karroak konnotazio hori. Zergatik ematen dion jendeari lotsa karroarekin erosketak egitera joateak. Bai, ze jendeari lotsa ematen dio; gazteei lotsa ematen die etxekoandreak bezala karroarekin joateak. Eta agian gizonei ere bai –salbuespenak salbuespen–.

Erridikulua egiten al da karroarekin? Barregarri geratzen al da karroarekin erosketak egitera joaten dena? Ba zer esango dizuet. Niri oso eroso iruditzen zait eta amonak, emakume zaharrak edo etxekoandreak azkarrak direla iruditzen zait, esperientzia dutela eta asko dakitela uste dut. Haiengandik ikasi behar ko genuke –beste gauza asko bezala–.

Amonak edo emakumeak ez daude batere kezkatuta barregarri geratzearekin. "Ni karroarekin, eta zer?" esango dute barre txikia egingez. Modaz kanpo daudela? Haiei bost axola. Ederki ahaldunduta daude; ederki gaintututa dauzkate modaz kanpo egotearen konplexuak; eta erabat jabetuta daude karroak dituen abantailaz. Pena gazteagoak ez konturatzea eta karroarekin barregarri geratzen direla pentsatzea. Harik eta gazte *influencer* batek Tik-Token bideo bat egin arte karroarekin erosketak egiten.

**"EDERKI
AHALDUNDUTA
DAUDE; EDERKI
GAINDITUTA
DAUZKATE MODAZ
KANPO EGOTEAREN
KONPLEXUAK"**

Asteotako jaiak iruditan

Udako festen denboraldi batean gara jada. Kalezarren hasi zituzten ospakizunak ekainaren 19tik 24ra. Haren lekukoa hartu zuten Usurbilgoek iragan astean, uztailearen 1etik 5era. Festa horien guztien irudi bildumak ikusgai dituzue noaueus/bereziak atarian. Jai giroa hilabete amaieran itzuliko da Zubietara, gero etorriko dira Xanistebanak, Atxegaldeko jaiak... Xehetasun gehiago, hurrengo aldizkarian.

Sutegi udal liburutegiko ordutegia

Ekainaren 24ra arte, ohiko ordutegian ireki eta gero, hilaren 25etik 30era itxita egon zen Sutegi udal liburutegia. Urtero moduan, tarte bat hartu zuten barruko lanetarako. Uztailearen 1ean berriz ireki eta geroztik udako ordutegia dute indarrean.

Irailaren 4ra arte, asteleheneretik ostiralera irekiko dute udal liburutegia, goizez, 09:30-14:00 artean. Horrez gain, azken urteon ildotik, uztaileko astelehenera ere zabalik izango duzue, 17:00-19:00 artean.

Informazio gehiago:

biblioteka@usurbil.eus
943 360 693 /
688625477 (whatsapp zerbitzua).



Goizez irekiko dute irailaren 4era arte.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

txirriStra
TABERNA
·PLATER KOMBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66


URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
it-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Konpromiso kreditua Arrobitxulorako

Konpromiso kreditu bat onartu zuen udalbatzak ekaineko osoko bilkuran, "Arrobitxuloren obrari bide eman ahal izateko".

Gehiengo osoz onartu zuten EHBilduren udal gobernu taldekoen babesarekin (EAJ eta PSE abstenitu ziren). Legealdiko "proiektu izar eta estrategikotzat" jo zuen Usurbilgo alkateak Arrobitxulo. Gogora ekarri zuenez, eragileekin batera parte hartze prozesu bat landu zuten "eduki sozialak zehazteko" eta gero, "horren arabera aurreproiektu bat landu genuen". Hori gauzatzeko "inbertsio potoloa" beharrezkoa izanda, ohiko aurrekontuetatik ezingo ziotela aurre egin adierazi zuen eta honenbestez, "mailegua

eskatu beharra" ikusi zuten, "proiektu hori eskuartearen izan genuenerako eta obrak lizitatu ahal izateko udalak partida erabilgarria izateko". Horretarako, aurrekontuetan "mailegu horren zati bat haur eskolara bideratzen dugu eta Arrobitxulora". Bitarte honetan, parte hartze prozesutik eratorritako ekarpenetan oinarrituriko aurreproiektua egin zen eta "hori exekuzio proiektu bihurtzeko lizitazio bat egin genuen. Horrek ekarri duena da, une honetan izatea Arrobitxuloren exekuzio proiektua eta guztira 3,2 milioi



Dirulaguntzak eskuratzeko aholkularitza zerbitzua kontratatu du Udalak.

euroko aurrekontua eskuartearen". Udalak aurreikusitako 2,5 milioi euroak baino gehiago dira. Horregatik, "kontuhartzailetzatik jaso genuen proposamena izan zen, mailegua handitu ordez, kreditu konpromisoa" onartzea. Milioi bat eurokoa izango da, 2027ko eta 2028ko aurrekontuetan txertatuko dutena; 500.000

euro 2027an eta beste 500.000 euro 2028an.

"KREDITUA 2027 ETA 2028 URTEETAKO UDAL AURREKONTUETAN TXERTATUKO DUTE"

'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

"Baby-sitter"

Ez da hau azken urteotan asmatutako ofizioa, ez horixe! Bestela, begira zer gertatu zitzaion Herbero-eneko Domingori. Haurra bere sehaskan isilik egon zedin, sehas-karieragiten ibiltzen omen zen mutilkozkorretan, xoxa batzuk eskuratzeko, eta horretarako bere zer-

bitzuek eskaintzen omen zituen han-hemenka.

Halere, noiz edo noiz lagunek adar-jotze pis-ka bat egin behar eta horrela esaten omen zioten:

-Domingo, joan hadi sehaskari eragitera... Erretoretxera!

Oilasko-biltzaileak

Santixabeletan, oilasko-biltzaileetan atera bezperan, horegin dugure Naxariok neska-laguntze bat. Nonbait, ondo 'portatu', eta neska horrek oilaskoa agindu dio hurrengo egunerako.

Baserrira ailegatu dira gure oilasko-biltzaileak baina, neskaren ordez,

hor atera zaie aita. Kantatu eta dantzatu ondoren, oilaskoaren arrastorik ez. Atrebentzia hartuta hor hasi zaio gure Naxario etxeko nagusi jaunari:

-Eeee..., eeee..., atzo zure alabak oilaskoa agindu zigun...

-Aitak: A bai? Atzo oilanda eta gaur oilaskoa?



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Santueneara bidean datozen proiektuei buruz Udalak maiatzean auzoko frontoian eginiko aurkezpena.

Auzo zaintzarako bilgunea izango du Santueneak

Santueneako jubilatuen elkarteak, aurrerantzean Hurbilduz auzo-zaintza egitasmoaren baitako bilgunea izan nahi duena ustiatzeko zerbitzuaren kontratazio espedienteak onetsi zuen udalbatzak ekainaren 25eko osoko bilkuran; horrekin batera, baita esleipen deialdirako oinarriak ere.

ARITZ LASARTE

Auzokideekin eta bertako eragileekin lankidetzan, Santuenea bizigarriagoa eraikitzeko bidean, bi erabaki hartu zituen udalbatzak. Batetik, gogoan izan, urteotan eginiko lanketaren baitan, diagnosi bat osatu eta hortik, auzo plan bat egin zuten. Plan horretan aipatzen da, "zaintzen duten espazioen eta ekipamenduen aldeko apustua egiten duen auzoan bihurtu nahi dela Santuenea". Erabat bat dator, Udaletik sustatu nahian dabiltzan zaintza ereduaren eraldaketa estrategiarekin. Santueneako jubilatuen elkarteak izan dena, etorkizunean estrategia horretan kokaturiko Hurbilduz proiektuarekin lerro-

katu nahi du udal gobernu taldeak. Egitasmo horren helburua, "egoera hauskorrean eta bakardade egoeran dauden auzokideen integrazio komunitarioa ahalbide-tzea da". Aginagan abiarazitako egitasmoa, Santuenean ere lantzen hasiak dira. "Auzoko eragileek begi onez" ikusi zuten iazko amaie-

"ZAINZEN DUTEN ESPAZIO ETA EKIPAMENDUEN AUZOAN BIHURTU NAHI DA SANTUENEA"

ran proposamena. Aurten, bilgune hori nola berregokitu adosteko lanketa bideratu dute. Horregatik, elkar zaintzarako espazioa sustatu nahi dutenez, "garrantzia hartzen du lizitazio honetan, jantoki komunitario bat eskaintzeko asmoak", 65 urtetik gorako pertsoneri, haien autonomiarri, nahi ez diren bakardade

"GARRANTZITSUA DA LIZITAZIO HONETAN, JANTOKI KOMUNITARIOA ESKAINTZEKO ASMOA"

egoerei, balizko elikadura defizitei eta haien integrazio komunitarioari erantzungo liokeena. Ondorioz, kudeatzaileak egiteko berria izango du; "auzo zaintza proiektuaren eragile komunitarioa izatea".

Egun, itxita dago bilgune hori. Ahalik eta lasterren berriz irekitzeko, "paraleloki joango dira obrak eta lizitazioa", hiru urterako izango dena, luzagarria izango den arren.

Finantziario handiagoa hirigintza lanetarako

Bestalde, milioi bat euroko kreditu gehikuntza onetsi zuen udalbatzak. Hortik 400.000 euro Santueneako urbanizazio lanetara bideratuko dituzte. Gobernu taldearen arabera, aurrekontuen lanketan 200.000 euro jasotzeko asmoa agertu zuten, urbanizazio proiektuaren exekuziorako "motz geratuko zela" jakinik. "Artean, exekuzio proiektu hori idazten ari ginenez eta aurrekontu zehatzik ez genuenez, horretan utzi genuen", jakinarazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak. Orain, proiektu hori eskuartean dute eta horrekin heldu da aurrekontu zehatza, 600.000 eurokoa. "Ez dugu dudarik proiektu hau estrategikoa dela Santuenearentzat", izan ere, udalbatzak onartutako Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integralean jasotako eskuhartzeetako bat da. "Irisgarritasun baldintzak nabarmen hobetzea ekarriko du, plaza ingurua, errepidea eta parkea kota berdinerara ekartzen ditugulako eta etxe arteko aldapan, irisgarritasun baldintzak nabarmen hobetzen dira". Horrez gain, "taberna aurreko gunean kalitatezko espazio publikoa" sortu nahi dute. Izan ere, egungo helduentzako ariketa fisikoa egiteko makinaren eremua, be-launaldiartekotasuna sustatzeko eremuan bilakatuko dute. Aldaketarik ezean, uda ostean lanon lizitazioari ekin asmo diote.



Udal gobernu taldeko ordezkariak Aritzeta jabeekin ateratako argazkia, aipatu eraikina atzean dutela.

Aritzeta erosi eta "Medikuaren Etxea" salduko du Udalak

Udalbatzak onarturiko kreditu gehigarri baten baitan, Aritzeta erosi du Udalak. Hori finantzatzeko bere jabetzako "Medikuaren Etxea" salduko du. Partida gehiago ere iragarri dituzte eta horiek finantzatzeko beste iturri bat ere bai; Oiardoko sutearen harira jasotako kalte-ordaina.

ARITZ LASARTE

Ondasunen salerosketa ere izan zuten udalbatzakhizpideen artean, ekainaren 25eko osoko bilkuran. Milioi bat euroko kreditu gehikuntza onartu zuten gehiengo osoz (EHBildu alde eta PSE zein EAJ abstentzioa). Horren baitako "partida ia gehienak berriak dira", jakinarazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak. Nabarmendu zituenen artean dira, haur parkeak berri (15.000 euro), brigadarentzako ibilgailua erosi, haur eskolaren harira Udarregirekin hautsi beharreko kontratuak eragindako kalte-ordainei (50.000 euro) edota udal langileen soldata igoyerari aurre egitea ahalbidetuko dutenak. Horrez gain, "garai zailak" bizi

dituen tokiko merkataritzaren erreleboa sustatzeko 36.000 euroko partida iragarri zuen. Izan ere, "tokiko mertakaritzan ari diren pertsona gehienak erretiroaren atarian daude". Horregatik, "Usurbil Zabalik" izeneko dirulaguntza lerroaren baitan, haien "ondorengotza horiek ziurtatzen" lanketa horretan dabil Udala, Hurbi-lagorekin, Beterrri Buruntza

**"ERAIKINA EROSI
ETA JABEEKIN
ADOSTASUNERA
HELTZEA OSO
ERRAZA ETA
EROSOA IZAN DA"**

mankomunitatearekin eta Siadecorekin lankidetzan.

Erabilera zehazteke

Horrekin batera, kreditu gehigarri horretako 250.000 euro Sutegiri itsatsitako argazkiko Aritzeta erostera bideratuko ditu gobernu taldeak. "Ez da ohikoa Udalak ondasunak erostea", adierazi zuen alkateak ekaina amaierako osoko

**"BADAGO GALERA
BAT, BAINA
HERRIAK
IRABAZTEN DUENA
ASKOZ GEHIAGO
DA"**

bilkuran. Haren jabeek duela hilabete batzuk udaletxera jo zuten saldu nahian zebiltzala eta ea Udalari erostea interesatuko zitzaion galdeztzera, "batez ere eraikin eta espazio publikoz inguratutako eraikina" dela ikusita. Tasazio batek erabaki zuen salmenta prezioa. Gaia aztertu zuen Udalak eta "egindako eskaintza oso onuragarria" zela iritzi zioten. "Eraikina erosi eta jabeekin adostasunera heltzea oso erraza eta eroso izan da", gobernu taldearen esanetan. Oraindik ez dute erabaki zertarako baliatuko duten, aurrerago, "gerora ikusiko da zer erabilera eman".

"Mediku Etxearen" salmenta

Kreditu gehigarri hau bi deetatik finantzatu asmo du udal gobernu taldeak. Iazko abuztuan, Oiarde kiroldegian izandako sutearen harira asegurutik 650.000 euro jasoko ditu Udalak, ehuneko ehuna alegia. Horrekin batera, Aritzeta erosi baina aldi berean, udaletxe ondoko udal jabetzako "Mediku Etxea" saldu egingo du Udalak. Garai batean, DYAK edo gerora Andatza mendi taldeak erabilitako eraikina hutsik izan da azken urte luzeotan. Udalak aztertu zuen ea egokia izan zitekeen udal zerbitzuren bat bertan kokatzea, baina zailtzat jotzen zuten, irisgarritasuna bermatu beharreko bi solairuko etxebizitza izanik. "Etxe hutsen lanketa betean da udala, etxe hutsak merkaturatzeko lanketan gaude" eta saltzea erabaki du. Halako ariketa bat egiten duen lehen aldia da gobernu taldetik aditzera eman dute. Tasazioa egin dute. Udazkenean, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) indarrean jartzean saldu ahalko dute. "Badago galera bat, baina herriak irabazten duena askoz gehiago da, Aritzeta erosteko apustua egin dugulako".



Udal ordezkariak eta Zubieta Lanbide Eskola zein Usurbil F.T.-ren kideak udalbatza aretoan, jaiei hasiera eman aurretik.

Herri omenaldi bikoitza, festen hasieran

Udaletxe aurreko plaza jendez gainezka zela ekin zieten Usurbilgo jaiei uztailaren lehenean. Udal ordezkariak eta aurtengo bi eragile omenduak, 50 urte betetako Zubieta Lanbide Eskola eta Usurbil F.T.-ren kideak elkartu zituen hitzorduak udaletxeko balkoian.

ARITZ LASARTE

"Lehertu dadila festa!", Usurbilgo alkateak eginiko dei horrekin ekin zieten Usurbilgo jaiei uztailaren lehenean, udaletxe ataria betea zela, jendartearen txalo eta oiherarte. Berezia izan zen ueña udal ordezkari batentzat baino gehiagorentzat, datorren maiatzeko udal hauteskundeetan atarian, amaierara bidean den 2023-27 legealdiko bere azken txupinazoa bizi izan zutelako. Hiru udal taldeetako ordezkariak elkartu ziren udaletxeko balkoian; EHBildu, EAJ eta PSE-koak hain zuzen.

Hitza Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak hartu zuen, beste ezer baino lehen, jai batzordeak hilabeteotan eginiko lana eskertzeko, "festa zaintzaileagoak eta inklusiboagoak izateko" eginiko

ahaleginagatik. Venezuelako lurrikaran kaltetuak nahiz palestinarrek gogoan hartu zituen. Segidan, omenduak izan zituen mintzagai; hasteko, Zubieta Lanbide Eskola, "frankismoaren hondarretan, ia dena egiteke zegoen garaian" aipatu proiektua "abiatzeko ausardia eta konpromisoa" hartutako ekintzaileak. "Lortu duzue eskola aitzindaria eta erreferentzia izatea hainbat eta hainbat eremutan". Zo-

**"LANBIDE ESKOLAK
DUELA 50 URTE
HASI ZUEN BERE
IBILBIDEA
USURBILGO
UDALEAN"**

riondu egin nahi izan zituen, baita mende erdia betetako Usurbil F.T. eskertu ere. Azpimarra egin nahi izan zuen "futbol klubean edota bestelako klub batzuetan ere egiten duten lana, hartzen duten konpromisoa, beraien gertutasuna, lantzen dituzten balioak". Bide batez, euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatu zuen. "Herri bat gara eta Euskal Herriak eskubidea izan behar du nazio gisa lehia-

**"50 URTE BETE
DITU GURE
HERRIAN FUTBOLA
SUSTATZEN,
BELAUNALDIK
BATZEN"**

tzeko" hango eta hemengo txapelketetan, adierazi zuenez.

Jaiak gozatzeko deia egin zuen, "errespetuz eta beldur gabe" eta euskalduntasunaren harrotasunaz.

Mende erdiari gorazarre

Ohore handitzat jo zuten omenduek jaien hasieran udaletxeko balkoian egoteko gonbita, jaiak eta herria goratzearekin batera. Esker ona adierazi zioten Usurbilen herriari. "Zubieta Lanbide Eskolak duela 50 urte hasi zuen bere ibilbidea Usurbilgo Udalean, Benantxio apaizaren eta hainbat usurbildarren lanari esker. Lehen bi urteak Aginagan egin ondoren, Zubietan jarraitu du bere ibilbidea gaur arte. Hasiatik, Usurbilgo eta eskualdeko gazteak gizarartearen eta industriaren helburu izan dira; bikaintasuna, inklusioa, berdintasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza ere bai. Eta 50 urte hauetan zehar, konpromiso berarekin jarraitu dugu ikastetxean; gazteak lan mundura eta gizarterako prestatzen. 50 urteren ondoren, berriz ere hemen gaude, Santixabel jaiei hasiera ematen", adierazi zuen balkoitik ikastetxeko zuzendari Isidro Zalduak.

Urte berezia bizi izan du bai Lanbide Eskolak baita Usurbil F.T.-k ere. "50 urte bete ditugu gure herrian futbola sustatzen, belaunaldiak batzen eta Usurbilekiko ahalegina, konpromisoa, laguntasuna eta maitasuna bezalako balioak transmititzen", adierazi zuen klubeko lehendakari Ainhoa Azkuek. Urte hauetako guztietako bidelagunen ahalegina eskertu eta falta direnak gogoan hartu zituen, "honaino ekarri gaituzten bidea eraikitzen lagundu duten pertsona guztiak; bai Usurbil F.T., bai Zubieta Lanbide Eskola urtez urte hazten jarraitu dezagun, denbora, esfortzua eta ilusioa eskaini dioten guztiak. Izan ere, haiek gabe ezinezkoa litzateke gaur gu balkoi honetan egotea".



Azken urteotako ohiturari jarraituz, udaletxean ordezkatuta dauden alderdi guztiek parte hartu zuten soka dantzan. Eta eurekin batera, hainbat senide eta lagun.

Soka dantzak irudi ikusgarriak utzi zituen

Egun seinalatuan, udal ordezkariak soka dantza eskaini zieten Joxe Martin Sagardia plazara hurbildu ziren herritarrei. Zubietako Lanbide Eskolako eta Usurbil Futbol

taldeko kideez gain, alkate zein zinegotzien lagunak eta senideak ere plazaratu zituzten.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, udaletxean ordezk

katuta dauden alderdi guztiek parte hartu zuten soka dantzan. Udalbatzako ordezkariak euren ingurukoak gonbidatzen dituzte eta aurten ere hala izan da. Horiez gain, Zubietako Lanbide Eskolako eta Usurbil Futbol Taldeko kideen partehartzea ez zen oharkabea pasa.

Orbelde Dantza Taldearen lana nabarmendu behar da

beste behin ere, eurak direlako politikariak soka dantzarako trebatzen dituztenak.

Hamaiketakoaren zain

Soka dantza bukatu orduko abiatu zen lore eta salda banaketaketa. Hurbilagokoak fin-fin aritu ziren lanean. Bien bitartean, Triku trikitixa eta panderojoleen taldea frontoi inguruan ari zen, giro ederrean aritu ere.



Soka dantzaren garaian, jendetza batu zen udaletxe inguruan.



Hurbilagokoek hamaiketako ederra prestatu zuten.



Triku taldearen kalejirak alaitu zuen Santixabel eguneko eguerdi partea.



Gure Pakeako lagunek ere parte hartu zuten lore eta salda banaketan.

"Gerri-buelta", etsipenaren aurkako antidotoa

Ikusmina handitzen, maila hobetzen eta harrera jendetsuagoa izaten segitzen du jaien hasierako gazte antzezlanak.

Aurtengoa ez da salbuespena izan. Telebista saio ezagun baten parodia ekarri ziguten festen hasieran, etsipenaren aurkako eta borrokarako grina pizteko antidotogisa. "Iruditzen zaigu, orohar, bagaudela nahiko etsituak, ba omen direla desesperantza garaiak. Zer hobea "Gerri-Buelta" Usurbilera ekarri eta konponbide bat bilatzen saiatzea baino? Lagunduko diguzue denokezta?", egin zuen gonbita saioa aurkezleak. Iazko aurpegi ezagun batzuk itzuli ziren oholtzara, besteak beste, mundu mailako goi agintariak, berriak ere bai;

hala nola, Peio Reparaz edota herrikide bat tartean. Jai giroa sormen, aldarririk eta bizi dugun garaia eraldatzeko gogoz plazaratu ziren Xauxar txosna batzordeko kideak.

Antzezlanean amaieran aldarririk zutenez, joera indibidualistak, gerrak, genozidioak, inperialismoaren aurrerapena edota eskuin muturraren hazkuntza indartzen doan honetan, "guk baditugu hamaika arrazoi borrokarako", adierazi zuten. Euskal Herria oldarraldi horretatik salbu egon ez arren, "guk baditugu baldintzak, guk guztiok" sor-



Gazte antzezlanean egileak.

tutakoak. "Ezinbestekoa da babestu, zaindu eta errespetatuko gaituzten espazioak sortzea, euskara oinarri izango duen herri askea eraikitzea. Guk honetan dihardugu lanean. Gazte antolakuntza eta borroka guztiz beharrezkoak dira. Txosnak dira hain zuzen, erresistentzia honen erakusle, ezinbesteko espazioak elkartzeko, asmatzeko, konspiratzeko, sortzeko, partekatzeko eta nola ez, berrasmatzeko".

Festen bidez, "gozamina eta borroka zuzenean lotzen dugu, borroka egiten gaituelako aske eta askatasun hori delako gozagarria".

**"GAZTE
ANTOLAKUNTZA
ETA BORROKA
BEHARREZKOAK
DIRA"**



Mundu mailako agintarien bisita izan zuten.



Etsipenaren aurkako alternatibetako baten irudikatzea.



Eragin-sortzaile eta agintari ezagun bana.



Gazte antzezlanean amaieran, adierazpena plazaratu zuten unea.



Omenduen izenean, Pepe Fernandezek piztu zuen jaien hasierako suziria.



Plaza bete jende, festak hasteko irrikitan.



Askatasuna plaza txiki geratu zen, zikiro janean.



Gaztetzoeanak sorkuntza lan betean, jaien hasierako Kolore Festan.



Sutargi taldekoekin erromerian, zaletuak txosnagunean.



Hamaika joan-etorri egin zituen txutxu trenak, bidaiariz betea.



Egurtzegi, Usurbilgo txistularien uztailaren 2ko kalejirako geltokietako bat.



Iñaki Agirresarobek 1984-2025 urte arteko jaietako irudiak proiektatu zituen.

IRUDITAN



Gaupaseroek esnarazi zuten jaietako azken eguna.



Jaien hasierako herri kalejirak jendetza mugiarazi zuen.



Jaixkiye txaranga taldeak jaietako lehen kalejira girotu zuen.



Tapiak eta Leturiarekin txiki geratu zen frontoia.



Artzabalgo frontoia aparrez gainezka, Haurren Egunean.



"A Toda Madre" mariatxien talde nafarrarekin dantzan, jaien azken txanpan.



Txirikordako bizilagunak, paella txapelketako partaideen artean.



Izan Bai taldeak frontoia dardaratu zuen.



Urtea betetako Lauburu konpartsako buruhandiak kalejiretako baten irteeran.



Ixabel eta Ixidro, Lauburu konpartsako erraldoi beteranoenak.



Zapiak astinduz, Haurren Eguneko ereserkia abestu eta dantzatutako uena.



Kaktus DJak girotu zuen Haurren Eguneko azken txanpa.



Euri tanta artean ere festarako gogoz kalejiran, Xaukena taldearekin.



Txokolate jan gozoa, Haurren Egunean indarberritzeko.



Parranda gau luzeenaren ostea herriko kaleetan.



Euria tarteko, Gazte Eguneko bazkaria frontoian egin behar izan zuten.

IRUDITAN



Bira amaieran, oilasko biltzaileek ateratako urteroko talde argazkia.



Oilasko biltzaileek murgilarazi zuten herria festetan.



Herri bizitzarako gutxitan baliaturiko udaletxe ataria girotu zuen bertso saioak.



Mus txapelketa jendetsuko lehenengo lau bikote sailkatuak.



Laskotxarangak mugiarazi zuen jendetza herrian barrena.



Belaunaldi helduenaren topaketa, Atxega jauregian.



Errekortarien erakustaldia, Udarregi ikastolaren atariko "zezen plazan".



Toka, bola eta igel jokoak antolatu zituen Gure Pakea elkarteak.



Zirriborro tailerrekoek urtean zehar ondutakoa ikusgai jarri zuten Sutegin.



Joaldunak Egurtzegi giroztetik ekin zioten kalejirari.




Txosnetako bizikleta-kanabera lehiaketako txapeldunak.



Umeen Eguneko puzgarriak gaztetxoentzat.



"Auntoke" txapelketak euskal selekzioaren ofizialtasunarekin bat egin zuen.



Zuberoako Xiberuko Botzaren aldeko elkartasun postua jarri zuten.



Jauzika eta dantzan, Umeen Eguneko erronkako parte hartzaileak.



Ahatetxoaren arrantzan, Haurren Eguneko ginkanako parte hartzaileak.

Su eta dantza festa, maskotaren birrintzean

Gaua argituriko su festa musikatuak eta dantzari gazteen saioak girotu zuten jaien amaierako azken traka.

Leherketa modukoa gertatu ohi den bezala jaien hasieran, amaiera zirrargarria izaten dute Usurbilgo festek azken trakarekin. Aurtengoa ez da salbuespena izan. Su festa musikatu eta dantzatua izan zuen hitzordu horrek, uda giroko uztailearen 5eko gau partean. 23:00ak jotzearekin batera hasi zen bi une gogoangarri izandako saioa; lehenbizikoan, emakume dantzari gazteek hartu zuten plaza. Erritmo ezberdineko hiru kantekin, girotu zuten unea. Segidan, jaietako egunotan zaindaria lanak

eginiko Martin arrantzalea sutan birrintu zuten, su festa ikusgarri eta musikatuaren artean.

Elkar zaintza

Aurtengo maskota ere Jokin Eizagirre herrikideak sortu du. Keinu, esanahi eta sinbolismoz beterikoa izan da. Gizakiaren eta naturaren arteko elkar zaintza aldarrikatu nahi izan du egileak. Izenari gorazarre eginenez, eta ahotan zeraman arraintxoari keinu eginenez, tokiko merkataritzaren zaintzari ere aipua egin nahi izan zion. Bi



Azken traka giroturiko emakume gazteen taldea.

arrandegi ditugu herrian, biak ala biak jubilarzioagatik ixtear. Azkenik, iaz zendutako alkate ohi Martin Larrañaga ere omen-du nahi izan zuen Eizagirrek.

Bi piezako zaindaria izan da aurtengoa; batetik, Martin arrantzalea bera frontoian zintzilik izan da astebetez. Aldi berean, Potxoeneako atarian esku batek heldutako bere kabia egon da kokatua. Bata zein bestea, sutan birrintu

ziren jaien amaieran, azken urteon ildotik, ohi baino burrunba txikiagoarekin eta segurtasun handiagoz.

"AURTENGO MASKOTA ERE JOKIN EIZAGIRRE HERRIKIDEAK SORTU DU"



Su festa musikatuak girotu zuen jaietako azken txanpa.



Su festak argitu eta birrintu zuen Martin arrantzalea.



Dantzan hartu zuen plaza belaualdi gazteenak.



Aurtengo Usurbilgo jaietako azken dantza.



Uztailaren 4ko herri kirolen erakustaldi bizian parte harturiko herritarren bi taldeak.

Desafio itzela, herritarren arteko herri kirolen lehian

Ikusmin itzela eragin zuen beste behin, uztailaren 4an Dema plazan herri kiroletan neurturiko herritarren erakustaldiak.

ARITZ LASARTE

Herri kiroletako desafio itzela ikusi eta haren zirrara bizitzeko aukera eskaini zuen argazkiko herritar taldeak. Beste urte batez, plaza bete eta erakustaldi bikaina eskaini zuten

jaietako larunbatean, uztailaren 4an. Bi lehiakide multzotatik banatuta, zazpi probatan neurtu ziren, sei aldiz, gelditu gabe. Emozio handiko proba izan zen. Lehia estua izan zen. Bi taldeak elkarri aurre hartu

zioten uneren batean, paretsu ibili ziren beste hainbatetan. Amaiera ikusgarria eskaini zuten. Azkenean, talde gorriak aurre hartu zion urdinari. Baina herri bizitza izan zen azkenean, txapeldun nagusia. Txalo zaparrada jaso zuten denek eginiko ahalegin itzelagatik.

Herri kirol desafioa

Probak: harri-jasotzea, giza proba, zaku garraioa, aizkolaritza, txingen garraioa, trontza eta korrika.

Iraupena: proba bakoitza sei aldiz.

Partaideak, probak:

1-Harri-jasotzen: Udane Ostolaza Etxabe eta Estefania Etxebeste.

2-Giza proban: Gabi Sarasola Ibargoien, Iurgi Mendiluze Zuloaga, Imanol Zaldúa Unanue eta Mikel Villafafila Illarramendi.

3-Zaku garraioa: Beñat Bereziartua Urretabizkaia eta Ander Iruretagoiena Ezeiza.

4-Aizkoran: Haritz eta Jon Esnal Odriozola anaiak.

5-Txingetan: Aitor Villafafila Illarramendi eta Ane Elexpe Cabrera -Josu Oiartzabal Zapirain eta Ane Azkonobieta Irazusta.

6-Trontzan: Aloña Pulido Orbegozo, Aitor Izagirre Lopeategi - Agurtzane eta Garikoitz Alkorta Urdanpilleta anai-arrebak.

7-Korrika: Ekiñe Zalakain Martija eta Borja Pulido Orbegozo - Izadi Azkonobieta Etxabe eta Iñaki Añorga Unanue.

"EMOZIO HANDIKO PROBA IZAN ZEN. LEHIA ESTUA IZAN ZEN"



Trontzan bikote bat eta anai-arrebak lehiatu ziren.



Esnal anaiak lehiatu ziren aizkolaritza proban.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

TXAPELDUN
ARDANGELA

PLATERAK
OGITAR TEKIOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurra 2, 943 49 88 83



Sari banaketan, Mikel Arroyo epaile herritarra ere saritu zuten.



Haranen ez da partidarik jokatuko aurten.

Etxekoak txapeldunorde, Usurbilgo 53. Pilota Lehiaketan

Uztailaren 2an jokatu ziren gazteen nahiz helduen mailako Usurbilgo 53. Pilota Txapelketako finalak frontoian. Neurketa batean zein bestean lehia bizia izan zen.

Herri ordezkari bakarra zegoen neurketotan; Xabi Santxo. Julen Urruzolarekin batera jokatu zuen azken faseko partida, iaz ere egun berean jokatu zuten bezalaxe. Duela urtebete garaile amaitu zuten eguna, txapeldunorde amaitu du Santxok aurtengo edizioa. Sari banaketan, besteak beste, Mikel Arroyo epaile herrikidea ere saritu zuen Pagazpe elkar-teak, eskainitako laguntzagatik.

Usurbilgo 53. Pilota Txapelketa

Gazteen mailan:

Jon Arregi / Mikel Zabala (Azkoitiako Oteiza/Abantzu) 15
Unai Zufiria / Peru Cestau (Behar zana) 22

- Txapeldunak: Unai Zufiria / Peru Cestau (Behar zana).
- Txapeldunordeak: Jon Arregi / Mikel Zabala (Azkoitiako Oteiza/Abantzu).
- Pilotari onena: Unai Zufiria.

- Tanto politena: Peru Cestau.

Nagusien mailan:

Xabier Santxo / Julen Urruzola (Pagazpe/Behar zana) 8
Hegoi Txoperena / Eñaut Goikoetxea (Leitza) 22

- Txapeldunak: Hegoi Txoperena / Eñaut Goikoetxea (Leitza).
- Txapeldunordeak: Xabier Santxo / Julen Urruzola (Pagazpe/Behar zana).
- Pilotari onena: Hegoi Txoperena.
- Tanto politena: Eñaut Goikoetxea.

Miriam Arrillaga "Plazandreak" txapelketan

Amaia Aldairekin osatu du bikotea. Txapelketa aste hasieran hasi zen arren, aginagarrak eta Aldaik hurrengo astean ekingo diote txapelketari, Salsamendik eta Capellanek osatzen duten bikotearen aurka.

Usurbil FT-ko hiru taldek Donosti Cup txapelketan parte hartuko dute

Aste hasieratik jokoan da nazioarteko hainbat gaztetxo osaturiko futbol taldeak bildu ohi dituen Donosti Cup txapelketa.

Herri ordezkaritza izango da lehiaketa horretan. Izan ere, Usurbil F.T.-ren hiru taldek parte hartuko dute. Aurten ez da neurketarik jokatuko Haranen; bai, aldiz, Zubietako Realaren zelaietan. Hona hemen, usurbildarrek egunotan jokatuko dituzten neurketak:

Donosti Cup

B14

- Multzoa: M.
- Parte hartzaile kopurua: 105 talde.
- Lehiakideak: Usurbil FT, GFI Academy, Antigua Luberri, Ultimate Madrid A.
- Neurketak:
 - Uztailak 8, 19:30 Lekunberriko Plazaolan: Usurbil FT-Ultimate Madrid A.
 - Uztailak 9, 17:10 Ciudad Deportiva SD Eibar Areitio 3an: GFI Academy-Usurbil FT.

B15

- Multzoa: K.

- Parte hartzaile kopurua: 86.
- Lehiakideak: Usurbil FT, PI Sports, Inter Academy Dubai, CFS Team B.
- Neurketak:
 - Uztailak 8, 17:10 Azpeitiako Garmendipen: Usurbil FT-Inter Academy Dubai.
 - Uztailak 9, 11:10 Donostiako LaSallen: Usurbil FT-CFS Team B.

B18

- Multzoa: M.
- Parte hartzaile kopurua: 72 talde.
- Lehiakideak: Usurbil FT, Espagnol Orleans CD, CD Eguzki, DNA Soccer.
- Neurketak:
 - Uztailak 8, 18:20 Idiazabalgo Arizkorretan: Usurbil FT-DNA Soccer.
 - Uztailak 9, 13:30 Astigarra-gako Zarkumendegin: Usurbil FT-Espagnol Orleans CD.

Informazio gehiago, donosticup.eus atarian jaso ahalko duzue.



"Ikimilikilik Vol.2" ikuskizuna iragartzeko, antolatzaileek iragan astean eginiko agerraldia.

"Ikimilikilik Vol.2", uztailaren 18an

Veneziako Bienaleraino eraman eta nazioarteko onespina jasotako Mikel Laboaren, Artze anaien eta Jose Luis Zumetaren "Ikimilikilik" sentikariak 50 urte bete dituen honetan, emanaldi hura berrasmatu du Loraldiak. Uztailaren 18an Dema plazan izango dugu ikusgai, gaueko 22:30etan.

ARITZ LASARTE

Duela 50 urte, Mikel Laboak, Artze anaiek edota Jose Luis Zumetak lankidetzan sortutako "Ikimilikilik" sentikariarekin "elkarrizketan sorturiko ikuskizuna; "Ikimilikilik Vol.2" izenekoa, Loraldiak ekoiztutakoa ekarriko dute herriko plazara hilaren 18an 22:30etan, 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak eta NOAUA! Kultur Elkarteak. "Ikuskizuna Usurbilen eskaintzeak esanahi artistiko, kultural eta emozional berezia izango du", iragarri zuen, euskal sorkuntzaren erakusleho izatetik haratago, "sortzaileak elkartu, sormena

bultzatu eta ekoizpen berriak bultzatzen dituen eragile aktibo" gisa definituriko Loraldiaren ordezkariak. Eburne Azkarateren zuzendaritzapean ariko dira, Iñaki Salvador, Orea Tx taldeko Harkaitz Martinez de San Vicente eta Itziar Navarro, Libe Kortazar, Intza Alkain eta Itziar Garaluze.

Argi zuten, sentikari haren 50. urtemuga gerturatzean, "jatorrizko sortzaileek izan zuten baimen bera eman behar geniola gure buruari, garaiki-deak, esperimentalak eta ausartak izateko". Horren emaitza da emanaldi berria; "duela 50 urteko ausardiaren eta

gaur egungo sorkuntzaren arteko zubi artistikoa bada". Esanguratsutzat jo dute ikuskizun hau udalerrri honetan eskaintzea. Batetik, "hemen bizirik daude, Ez Dok Amairuren, Artze anaien, Mikel Laboaren eta Jose Luis Zumetaren arrastoak". Bestalde, antzokietarako sortutako emanaldia plaza ireki batera ekarriko dute eta horrek tekniko-ki nahiz artistikoki, egokitzen lan handia eskatuko die. Erroka handitzat jo dute; "esanahi berria emango dio ikuskizunari". Horretarako, "espazioa berrirakurri, argia, soinua eta zuzeneko irudiak

egokitu eta ikuskizunaren atmosfera kalean berreraiki behar izango dugu".

"Ez Dok Amairuren Usurbil"

Ikuskizun honen berri izatean, "zalantzarik ez genuen izan, Usurbil bazela hori eskaintzeko plaza egokia", adierazi zuen agerraldi berean NOAUA! K.E.-ren kudeatzaile Alaitz Aizpuruak. Antzokitik plaza irekira ekartzeko erroka proposatu zien Loraldiakoei. "Euskal kultura da 650 Usurbil Bizi proiektuaren ardatzetako bat eta gure lanaren helburu nagusietako bat Usurbil izan denaren transmisioa da", bere esanetan, "egungo Usurbil ulertzeko ezinbestekoa". Helburu bera du baita 30 urte betetako kultur elkarte honek; beraz, "bi proiektuek bat egingen dute", Aizpuruaren esanetan.

Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietaentzat, erabat bat dator hitzordua 650 Usurbil Bizi herri egitasmoarekin, "Usurbil ezberdin asko" eza-gutzeko aukera ematen baitu; tartean, "Ez Dok Amairuren Usurbil ere". Hain zuzen, "Usurbil Ez Dok Amairuren herria ere badela" aldarrikatu zuen, hein handi batean, mugimendu horren sorterrria izan zelako eta mugimendu horretako kide, frontoi atzeko muralaren egile zein herrikide Jose Luis Zumeta, Artze anaiek edota haiekin hartueman estua izandako Mikel Laboa edota Udarregiren omeneko eskulturren egile Remigio Mendiburu. Laboaren sormen lanei hitzak jarritakoa zen Joxan Artze eta diskoetako azalaren egilea Zumeta. Herritar eta bisitari guztiak gonbidatu zituzten emanaldira. Sarrera doakoa izango da.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ZENDOIA ENEA taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil



Erakustaldia eskaintako dantza garaikideko taldeko kideak.

Urtean zehar landutakoa ezagutarazi du dantza garaikideko taldeak

"Bizitza elkarrekin dantzatzeko dugun koreografia" zioen emaldi amaieran erakutsitako pankartak. Urtean zeharreko lanketa eta taldea ezagutarazi zuten, kide berriak erakar-

tzeko asmoz, zazpi urteko ibilbidea osatua duen dantza garaikideko taldeko kideek ekainaren 26an Sutegi atarian. Zumetarengan inspiraturiko sorkuntza pieza eskaini zuten.



Ekaineko azken ostiraleko Sareren mobilizazioa. Hurrengoa, irailean izango da.

Sare, azkenak izatea nahi duten udako mobilizazioen atarian

Azkenak izatea nahi luketen mobilizazioak iragarri zituen uda parterako Sarek, ekaineko azken ostiraleko elkarretaratzean. Arrasateko agerraldi jendetsuan adierazi moduan,

hilabeteotan, "espetxe politika arruntera bidean, aurrerapauso handiak espero eta fase historiko bati amaiera emateko moduan egon gaitzke", gogorarazi zuen Sarek.



Erraustegiko langileek ekainaren 30ean eginiko elkarretaratzea.

Borrokan segitzen dute erraustegiko langileek

Ekainaren 23an egin bezalaxe, astebete geroago Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza atarian mobilizatu ziren berriz, urte hasieratik lan-baldintza duinak jasoko dituen hitzar-

menaren alde borrokan diharduten Zubietako erraustegiko langileak. Momentuz, aldaketarik ez bada, hilaren 30eko a izan zen uda aurretikegin asmo zuten azken mobilizazioa.



Ekainaren 24ko Sutegiko solasaldiaren amaieran atera zuten argazkia.

Euskal selekzioaren ofizialtasunarekin bat

Euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzeko hainbat atxikimendu irudi eta ekimen egiten ari dira, tartean baita Usurbilen ere. Ekainaren 24an gai horri buruzko solasaldia

antolatu zuen Aitzaga elkarteak Sutegin, Jagoba Arrasate hautatzaile, mendi lasterketeko kirolari Oihana Azkorbebeitia edota Bultzada Txuriurdineko kide batekin.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko lanetarako nahiz zaintza lanetarako lan bila nabil. 676 282 206.

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gaez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

90zm-ko ohe artikulatu bat koltxoirekin eta silloi edo butaka artikulatu motordunak dauzkagu salgai. 605280119.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Ikastaro sorta KzGunean

Uztailean arratsalde izango da zabalik, 16:00-20:00 artean. Abuztuan itxi egongo da. Hona hemen, datozen asteetarako ikastaroak:

- Uztailak 8-9 "Editatu bideoak zure smartphonearekin". Orduetgia: 16:00-18:00.
- Uztailak 10-15 "Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean". Orduetgia: 18:00-20:00.
- Uztailak 16-17 "Google Drive. Bildu eta partekatu zure

artxihoak". Orduetgia: 18:00-20:00.

- Uztailak 20-22 "Adimen artifiziala, ChatGPT eta haren alternatibak". Orduetgia: 16:00-18:00.
- Uztailak 23-24 "Android-en mantentze-lanak. Luzatu zure gailuaren bizitza". 16:00-18:00

Informazio gehiagorako:

943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Txost taldea nagusitu zen finalean

Oiartzungo Txost eta Zubietako I taldeek jokatu zuten Gipuzkoako Errebote Txapelketako finala. Partida lehiakorra izan zen eta 13-9 izan zen azken emaitza.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 11

USURBIL Bisita gidatua

Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita (gazteleraz).
11:00 Mikel Laboa plazatik.

ASTEARTEA 14

USURBIL 'Goazen Kalera', herri erdigunean

Udan, astearteroko ibilaldi guztiak herri erdigunean barrena egingo dira. Amaieran kafetxo baten bueltan biltzeko aukera izango da. 10:30 Frontoitik abiatuta.

LARUNBATA 18

USURBIL 'Ikimilikiliklik vol.2' ikuskizuna

1976ko Ikimilikiliklik sentikariarekin elkarriketan sorturiko ikuskizuna. Edurne Azkarateren zuzendaritzapean Iñaki Salvador, Oreka Tx, Libe Kortazar, Intza Alkain eta Itziar Garaluce arituko dira.
22:30 Dema plazan.

IGANDEA 19

USURBIL Errefusaren bilketa

Udalak bi astez behin biltzen du errefusa .



Uztailaren 25eko bisita gidatuan Salbatore eliza bisitatuko dute.

Uztaileko bisita gidatuak

Usurbilgo kaleetako kultur sorkuntza, hondakinen kudeaketa, bertako zaintza eredu... Bisita gidatuen eskaintza oparoa da. Hauxe da hurrengo asteetarako presatatu duten egitaraua.

Uztailak 11, larunbata

• 11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita (gazteleraz).

Uztailak 24, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Uztailak 25, larunbata

• 11:00-12:45 Museo Irekia eta Salbatore elizara bisita gidatua.

Uztailak 29, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Erreserbak egiteko:

650usurbilbizi.eus

'Ikimilikiliklik vol.2', Dema plazan ikusgai

Duela 50 urte, diziplina anitzetako artistek izen bereko sentikaria sortu zuten. Tartean ziren Mikel Laboa, Artze anaiak, Jose Luis Zumetaren artea... Bost hamar-kada geroago, ikuskari berri bat plazaratu du Loraldiak, "Ikimilikiliklik vol.2". Edurne Azkarateren zuzendaritzapean ariko dira Iñaki Salvador, Oreka Tx, Libe Kortazar, Intza Alkain eta Itziar Garaluce. NOAUA!-k eta 650 Usurbil Bizik elkarrekin antolatu dute uztailearen 18ko ikuskizuna. 22:30etik aurrera, Dema plazan.



Hayo Boerema.

Hayo Boeremaren organo kontzertua

Hayo Boerema Herbehereetako musikaria da eta gaur egun Rotterdam hiriko St Laurence Church elizako organista titularra da. Abuztuaren 11n Salbatore Elizan arituko da, Donostiako Musika Hamabostaldia ren eskutik. Ez da bakarrik arituko. Mixel Ducau (ahotsa, gitarra, alboka eta saxofoia) eta Caroline Phillips (ahotsa eta zarrabetea) musika-riak izango ditu alboan.

Abuztuak 11 asteartea

• 20:00 Salbatore elizan. Sarrera doan, aforoa bete arte.
• Antolatzailea: Donostiako Musika Hamabostaldia.
• Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.


ARANKA
BERRIKUNTZAK
• Fatxaden estaldurak • Estalkien berriztatzeak
• Barruko berrikuntzak • Gremioen koordinaketa
• Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Okidegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
PATXI JATEXEA
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361



www.noaua.eus



EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!

ikimilikiliklik

Vol.2

2026/07/18 | 22:30 | Doan
USURBIL. Dema plaza

650
USURBIL
bizi

Usurbil
Turismoa



Jatorrizko Ikimilikiliklik bidekidekariarekin
elkarrizketan sorturiko ikuskizuna

JATORRIZKO SORTZAILEAK

Abestiak: Mikel Laboa / Poesia: Joxean Artze / Arte-lanak: Jose Luis Zumeta

GAUR EGUNGO JOKALARIAK

Ekoizpena: Loraldia / Zuzendaria: Edurne Azkarate / Zuzendari laguntzailea: Mikele Urroz Zabalza
Musika-aholkularia: Iñaki Salvador / Sortzaileak eszenan: Iñaki Salvador, OREKA TX (Harkaitz Martinez de San Vicente eta Itziar Navarro), Libe Kortazar, Intza Alkain Zuzeneko, Itziar Garaluce
Testu berriak Intza Alkain, Itziar Navarro, Edurne Azkarate Zuzenezko ikus-entzunezkoak Itziar Garaluce
Argi teknikaria: Vanesa Santos / Soinu teknikaria: Mikel F.Krutzaga / Jantzitegia: Idoia Beratarbide
Produkzioa, kudeaketa eta komunikazioa: Loraldia